

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

14/2020 Foru Araua, urriaren 1ekoa, zeinaren bidez berresten baita Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatze paisaiak berreskuratzeko

Arabako Batzar Nagusiek, Ingurumen eta Hirigintza X. Batzordeak, ahalmen araugile osoz 2020ko urriaren 1ean egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

14/2020 Foru Araua, urriaren 1ekoa, zeinaren bidez berresten baita Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatze paisaiak berreskuratzeko.

Arabak berezitasun handiko asfaltozko harkaitz-hobiak ditu, antzinatik ustiatuak izan direnak; hala, XIX. mendearen amaieran Arabako industria Estatuaren buruan jarri zen, baita Europaren buruan ere, asfalto naturalaren aprobetxamenduan. Asfaltoak kareharri bituminosoak izeneko masak inpregnatu ditu Arabako Mendialdeko Eskualdeko hainbat lekutan.

1855. urtean, Urizaharra udalerriko Lotza herriaren inguruan asfalto naturala ustiatzeko lehen urratsak ematen hasi ziren, "Diana" meategiaren mugapean. Ondoren, Arabako Mendialdeko Eskualdeko hainbat lekutan ustiategi berriak egin ziren, meatze ustiapenen emakida eta asfalto eta harrobi eta lantegien irekiera eta itxieren sozietate eta konpainiak sortuz.

Meatze eremu zahar horiek degradazio egoera nabarmenean daude gaur egun, eta eragin zuzena dute inguruko ekologia eta paisaia kalitatean. Hala ere, ondare geologiko eta natural, historiko-industrial eta kultural baliotsua dute, eta horrek aztarna handia utzi du herri memorian, ondarean eta lurraldeko paisaian, eta agerian utzi du asfalto naturalaren aztarnategia sorrazazi zuten aparteko azaleratzeen eta prozesu geologikoen berezitasuna. Espazio horiek ia guztiak Natura 2000 Sareko eta haren babes eremu periferikoetako ekologia eta paisaia balio handiko eremuetan daude.

Horietako batzuek, gainera, erabilera publikorako eta hezkuntza erabilerarako baldintzak betetzen dituzte, eta, horrez gain, ahalbidetzen dute aukerak sortzea lurraldea modu jasangarrian dinamizatzeko alderdi sozio-ekonomikotik. Halaber, balio handiko berezko jarduera berezi bati lotutako kultura eta ondarezko ondasun berezi bat mantentzea ahalbidetzen dute. Horren jakitun izanik, bi erakundeek interesa dute antzinako meatze eremu historikoetan kaltetutako natura ingurunea berreskuratzeko jarduketak egiteko, bai eta antzinako meatze eremu horiei lotutako paisaia, kultura, hezkuntza eta ekoturismo baliabideen balioa nabarmentzeko ere.

Proposatzen den hitzarmenaren xedea da arautzea Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren arteko administrazio eta finantza lankidetzaren, Arabako Mendialdeko asfalto naturalak erauztearekin lotutako meatze paisaietako ingurumena lehengoratzeko eta hura egokitzeko, loturiko natura, kultura eta historia eta industria ondarearen balioa nabarmentze aldera.

Hitzarmenaren jardura esparruak hiru gune garrantzitsu aurreikusten ditu: Mina Lucia Ataurin, Coto Diana Urizaharrean eta Leorza-Zekuiano meatze eremua.

Bi administrazioek konpromisoa hartzen dute lehengoratzeko eta egokitze jarduketak egiteko antzinako meatze eremu horietan, barnean direla esku hartzearen proiektu teknikoak prestatzea eta obrak gauzatzeko, bakoitzaren aurrekontuen kontura eta guztira 972.000,00 euroko zenbatekoan.

Hitzarmenak iraupen zehatza izango du: sinatzen den egunetik 2023ko abenduaren 31ra arte.

Hona hemen hitzarmenean jasotako esleipen ekonomiko orokorrak:

2020ko urtekoa	110.000,00 euro
2021eko urtekoa	360.000,00 euro
2022ko urtekoa	300.000,00 euro
2023ko urtekoa	202.000,00 euro

Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren ekarpen ekonomikoak:

2020ko urtekoa	175.000 euro
2021eko urtekoa	215.000 euro

Hona hemen gastu partidak:

1. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "1 60.2.05.63.00.621.01.04 Meatzaritza paisaietan ingurumena lehengoratzeko: Arabako Mendialdeko asfalto naturalak" partida, urteka honela banatuta:

2020ko ekitaldia	5.150,00
2021eko urteko KK	360.000,00
2022ko urteko KK	300.000,00
2023ko urteko KK	202.000,00

2. 1 60.2.05.63.00.621.01.05 Meatzaritza paisaiak: lehengoratzeko. AUKK"

2020ko ekitaldia	104.850,00
------------------	------------

Azaldutako guztiagatik, lankidetzako hitzarmena sinatu behar da bi erakundeen artean, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatze paisaiak berreskuratzeko.

7/1983 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolamenduarenak, 6. artikuluko 2.b) apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, nola Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen bat den, Batzar Nagusiek berretsi behar dute foru arau bidez.

Lehenengoa. - Berrestea Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzako hitzarmena, "Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatze paisaiak berreskuratzeko." Akordio horren baldintzak honekin batera doan eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Foru arau hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 1a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



LANKIDETZA-HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GRAPEN ETA APIEGITURA SAILAREN ARTEKOA, ARABAKO MENDIALDEKO ASFALTO NATURALEN MEATZE-PAISAIK BERRESKURATZEKO.

Gasteiz,

BILDU DIRA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburu M^a Aranzazu Tapia Otaegi andrea, 2020ko uztailearen 28ko Gobernu Kontseiluak oniritzia emateko eta hitzarmena sinatzeko emandako baimena dela bide.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatu Josean Galera Carrillo jauna, Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren izenean oniritzia emateko eta hitzarmena sinatzeko abuztuaren 4ko 402/2020 ERABAKIaren bidez emandako baimena dela bide.

Bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hau

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS DEL GOBIERNO VASCO PARA LA RECUPERACIÓN DE LOS PAISAJES MINEROS DE ASFALTOS NATURALES DE LA MONTAÑA ALAVESA

Vitoria-Gasteiz,

REUNIDOS

Dña. M^a Aranzazu Tapia Otaegi, Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, en virtud de la autorización del Consejo de Gobierno, de fecha 28 de julio del 2020, para prestar el consentimiento y suscribir el convenio en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

D. Josean Galera Carrillo, Diputado de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, en virtud de la autorización del Consejo de Gobierno, ACUERDO 402 /2020 de fecha 4 de agosto para prestar el consentimiento y suscribir el convenio en nombre de la Diputación Foral de Álava.

Las partes se reconocen plena capacidad legal para la suscripción del presente Convenio de colaboración, a cuyo efecto



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ADIERAZTEN DUTE

Arabak berezitasun handiko asfaltozko harkaitz-hobiak ditu, antzinatek ustiatuak izan direnak; hala, XIX. mendearen amaieran Arabako industria Estatuaren buruan jarri zen, baita Europaren buruan ere, asfalto naturalaren aprobetxamenduan. Asfaltoak kareharri bituminosoak izeneko masak inpregnatu ditu Arabako Mendialdeko Eskualdeko hainbat lekutan.

1855. urtean, Urizaharra udalerriko Loza herriaren inguruan asfalto naturala ustiatzeko lehen urratsak ematen hasi ziren, "Diana" meategiaren mugapean. Ondoren, Arabako Mendialdeko Eskualdeko hainbat lekutan ustiategi berriak egin ziren, meatze ustiapenen emakida eta asfalto eta harrobi eta lantegien irekiera eta itxieren sozietate eta konpainiak sortuz. Meatzaritza jarduera nagusia Arraia-Maeztu udalerrian egin zen, Leorza, Korres, Maeztu eta Atauri herrien inguruan, hain zuzen ere.

Meatze eremu zahar horiek degradazio egoera nabarmenean daude gaur egun, eta eragin zuzena dute inguruko ekologia eta paisaia kalitatean. Hala ere, ondare geologiko eta natural, historiko-industrial eta kultural baliotsua dute. Espazio horiek ia guztiak Natura 2000 Sareko eta haren babes eremu periferikoetako ekologia eta paisaia balio handiko eremuetan daude.

EXPONEN

Álava es un territorio que acoge yacimientos de rocas asfálticas de gran singularidad que han sido explotadas desde antiguo, colocando ya a finales del siglo XIX a la industria alavesa a la cabeza del Estado e incluso de Europa en el aprovechamiento de asfalto natural. El asfalto ha impregnado masas de rocas calizas, denominadas como calizas bituminosas, en diferentes lugares de la Comarca de la Montaña Alavesa.

En el año 1855 comienzan los primeros pasos para la explotación del asfalto natural en las inmediaciones de la localidad de Loza, municipio de Peñacerrada-Urizaharra, en la demarcación de la mina "Diana". Posteriormente, en diferentes localizaciones de la Comarca de la Montaña Alavesa se sucedieron nuevas explotaciones, con sucesivas concesiones de explotaciones mineras, creación de sociedades y compañías de asfaltos y aperturas y cierres de canteras y factorías. El municipio en el que se centró el grueso de la actividad minera fue el de Arraia-Maeztu, concretamente en las inmediaciones de las localidades de Leorza, Korres, Maeztu y Atauri.

Estos antiguos ámbitos mineros se encuentran actualmente en un notable estado de degradación y abandono con un impacto directo en la calidad ecológica y paisajística del entorno. Atesoran sin embargo un valioso patrimonio geológico y natural, histórico-industrial y cultural. La práctica totalidad de estos espacios se encuentran ubicados en áreas de gran valor ecológico y



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gune horien berreskurapena bultzatzeko, Arabako Foru Aldundiak Plan Master bat egin du, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen ustiategi zaharretako meatze paisaiak lehengoratzeko eta haien balioa nabarmentzeko. Dokumentu horrek informazio espezifikoa eta erreferentziarako esparru orokorra emango ditu, ingurumena berreskuratzeko beharrezko jarduerak diseinatzeko eta ezartzeko.

Bi erakundeek interesa dute antzinako meatze eremu historikoetan kaltetutako natura ingurunea berreskuratzeko jarduketak egiteko, bai eta antzinako meatze eremu horiei lotutako paisaia, kultura, hezkuntza eta ekoturismo baliabideen balioa nabarmentzeko ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren arabera, besteak beste, honakoei buruzko eskumen arloak esleitzen zaizkio: Ingurumen eta Paisaiari, Natura Kontserbatzeari, Naturguneei, Biodibertsitateari eta Flora eta Fauna Espezie Babestuei buruzko eskumen arloak.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017

paisajístico de la Red Natura 2000 y de sus zonas periféricas de protección.

Con el fin de impulsar la recuperación de estos espacios la Diputación Foral de Álava ha llevado a cabo la elaboración de un Máster Plan para la restauración ambiental y puesta en valor de los paisajes mineros de las antiguas explotaciones de asfaltos naturales de la Montaña Alavesa, documento que aportará información específica y el marco general de referencia para el diseño e implementación de las actuaciones de recuperación ambiental necesarias.

Ambas instituciones están interesadas en la realización de actuaciones que se dirijan a la recuperación del medio natural afectado en estos antiguos ámbitos mineros de gran significación histórico-minera así como a promover la puesta en valor de los recursos paisajísticos, culturales, educativos y ecoturísticos vinculados a estos antiguos ámbitos mineros

Conforme al Decreto Foral 17/2016, del Consejo de Diputados de 9 de febrero, que aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, y por el que se le asignan, entre otras, las áreas de competencia relativas a Medio Ambiente y Paisaje, Conservación de la Naturaleza, Espacios Naturales, Biodiversidad y Especies Protegidas de Flora y Fauna.

Conforme al Decreto 74/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Dekretuaren arabera, sail horri esleitzen zaio, besteak beste, meatze-jarduerak eragindako naturaguneak zaharberritzea, arlo horretan beste sail batzuei esleitutako eskumenak alde batera utzi gabe.

Horregatik, eta aipatutako aurrekariak oinarri hartuta, aldeek erabaki dute administrazio-lankidetzarako hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. Xedea:

Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren arteko administrazio eta finantza lankidetzaren arautzea, Arabako Mendialdeko asfalto naturalak eraztearekin lotutako meatze-paisaiak ingurumena lehengoratzeko eta natura, kultura eta historia eta industria ondareari buruzko balioespena egokitzeko, Lucia meategian, Urizaharreko Diana barrutiaren eta Leorza-Cicujanoko mehatze eremua.

BIGARRENA. ALDERDI SINATZAILEEN konpromisoak. Finantzaketa:

Bi administrazioek konpromisoa hartzen dute meatze gune zaharrak zaharberritzeko eta egokitzeko honako ekarpen, proiektu eta obra hauek egiteko, bakoitzaren aurrekontuen kontura,

funcional del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, al citado Departamento se le asigna, entre otras funciones, la Restauración de espacios naturales afectados por actividades mineras, sin perjuicio de las competencias asignadas en esta materia a otros Departamentos.

Por ello y sobre la base de los antecedentes reseñados, las partes acuerdan suscribir el presente Convenio de colaboración administrativa, que se registrará por las siguientes

CLAÚSULAS

PRIMERA. Objeto:

Es objeto del presente Convenio regular la cooperación administrativa y financiera entre la Dirección de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava y la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco para la restauración ambiental de los paisajes mineros asociados a la extracción de asfaltos naturales de la Montaña Alavesa y su acondicionamiento para la puesta en valor de su patrimonio natural, cultural e histórico-industrial vinculado en el ámbito de actuación de los terrenos de las denominadas Minas Lucia, Coto Diana en Peñacerrada y ámbito minero Leorza-Cicujano.

SEGUNDA. Compromisos de las PARTES FIRMANTES. Financiación:

Ambas administraciones se comprometen a realizar actuaciones consistentes en las siguientes aportaciones, proyectos y obras de restauración y



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



behin organo eskudunek onartu ondoren.

Jarduerak ondoz ondoko bost fasetan egingo dira:

- Lehenengoa izango da proiektua idaztea eta, horren ondorioz, Lucia meategiaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko, erabilera publikorako eta ekoturistikorako egokitzeko obrak gauzatzea, erantsitako memoriaren “jarduketa orokorrak” deritzon 3.1.3 puntuaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko laguntza teknikoak barne.
- Bigarren fasean, Urizaharreko Diana barrutiaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko eta erabilera publikorako egokitzeko obrak proiektua idatziko da, erantsitako memoriaren “planteatutako jarduketak” deritzon 3.2.3 puntuaren arabera.
- Hirugarren fasean, Urizaharreko Diana barrutiaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko, erabilera publikorako eta ekoturistikorako egokitzeko obrak gauzatuko dira, erantsitako memoriaren “planteatutako jarduketak” deritzon 3.2.3 puntuaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko laguntza teknikoak barne.
- Laugarren fasean, Leorza-Cicujano meatze eremuaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko eta erabilera publikorako egokitzeko obrak proiektua idatziko da, erantsitako memoriaren “planteatutako jarduketa orokorrak” deritzon 3.3.3 puntuaren arabera.
- Bosgarren eta azken fasean, Leorza-Cicujano meatze eremuaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko, erabilera publikorako eta

acondicionamiento de los antiguos espacios mineros, con cargo a sus respectivos presupuestos, una vez aprobados por lo órganos competentes respectivos.

Las actuaciones se abordaran en cinco fases sucesivas:

- La primera de las cuales será la redacción del proyecto y consiguiente ejecución de las obras de puesta en seguridad, consolidación, acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de la Mina Lucia, conforme al punto 3.1.3. “Actuaciones generales“ de la memoria anexa, incluyendo las asistencias técnicas en la dirección e inspección de las obras que se considerasen necesarias.
- La segunda fase consistirá en la redacción del proyecto de las obras de puesta en seguridad, consolidación, acondicionamiento para el uso público del Coto Diana en Peñacerrada, segun el punto 3.2.3. “Actuaciones planteadas” de la memoria anexa.
- La tercera fase consistirá en la ejecución de las obras de puesta en seguridad, consolidación, acondicionamiento para el uso público y ecoturístico del Coto Diana en Peñacerrada, segun el punto 3.2.3. “Actuaciones planteadas” de la memoria anexa, incluyendo las asistencias técnicas en la dirección e inspección de las obras que se considerasen necesarias.
- La cuarta fase consistirá en la redacción del proyecto de las obras de puesta en seguridad, consolidación, acondicionamiento para el uso público del ámbito minero Leorza-Cicujano, segun el punto 3.3.3. “Actuaciones generales planteadas” de la memoria anexa.
- La quinta y última fase consistirá en la ejecución de las obras de puesta en seguridad,



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ekoturistikorako egokitzeko obrak gauzatuko dira, erantsitako memoriaren “planteatutako jarduketa orokorrak” deritzon 3.3.3 puntuaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko laguntza teknikoak barne.

Jarduketa horietatik, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du behin betiko likidazioaren ondoriozko azken inbertsioaren % 50era arte finantzatzeko, horretarako gaitutako aurrekontu partidaren mugekin:
"20.0.1.03.22.0100.1.721.00.73110.001Q/Arabako Mendialdeko asfalto naturaleko meatze guneak berreskuratzea":

2020.....	175.000 €
2021.....	215.000 €

Eusko Jaurlaritzaren 2020rako ekarpena, 175.000 eurokoa, hitzarmena sinatu ondoren egingo da, eta aurreratutako ordainketatzat hartuko da.

Eusko Jaurlaritzaren 2021eko ekitaldiko ekarpena, 215.000 eurokoa, Arabako Foru Aldundiak 2021eko ekitaldirako hitzarmenaren xede diren jarduketan obra ziurtagiriak ordaindu dituela justifikatu ondoren ordainduko da. Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du lehenengo obra ziurtagiriaren ordainketa osoa, aurrekontuan jasotako zenbatekoa agortu arte. Ordainketaren justifikazioa Arabako Foru Aldundiaren ziurtagiri bidez egingo da, obra ziurtagiriaren kopiaekin batera.

Hitzarmenaren xede diren meategiak

consolidación, acondicionamiento para el uso público y ecoturístico del ámbito minero Leorza-Cicujano, según el punto 3.3.3. “Actuaciones generales planteadas” de la memoria anexa, incluyendo las asistencias técnicas en la dirección e inspección de las obras que se considerasen necesarias.

De dichas actuaciones, el Gobierno Vasco se compromete a financiar hasta el 50 % de la inversión final resultante de la liquidación definitiva, con los límites de la partida presupuestaria habilitada al efecto “20.0.1.03.22.0100.1.721.00.73110.001Q/recuperación de los espacios mineros de asfaltos naturales de la Montaña Alavesa”:

2020.....	175.000 €
2021.....	215.000 €

La aportación del Gobierno Vasco para 2020 por importe de 175.000 euros se realizará tras firma del Convenio y tendrá carácter de pago adelantado.

La aportación del Gobierno Vasco para el ejercicio 2021 de 215.000 €, se abonará previa justificación del pago por parte de la Diputación Foral de Álava de las correspondientes certificaciones de obra de las actuaciones objeto del convenio para el ejercicio 2021, asumiendo el Gobierno Vasco el pago íntegro de las primeras certificaciones de obra hasta el agotamiento de la cantidad presupuestada. Dicha justificación del pago se llevará a cabo por certificación de la Diputación Foral de Álava junto con la copia de la certificación de obra.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



berreskuratzeko obrak amaitu ondoren, Arabako Foru Aldundiak likidazioaren azken memoria bat aurkeztuko du, benetan egindako inbertsio osoaren zenbatekoarekin eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzaren alde konpentsatu beharreko kopuruekin.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak egin beharreko kontratazioen zenbatekoak eta aurrekontu babesa honako hauek izango dira:

1.- Arraia-Maeztu udalerriko Lucia meategia segurtasuna ezartzeko, sendotzeko, erabilera publikorako eta ekoturistikorako egokitzeko obraren proiektu exekutiboa idaztea, Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuaren gastuen egoera partidaren kargura, 2020ko ekitaldirako, ("1.60.2.05.63.00.621.01.03 Arabako Mendialdeko Asfalto Naturaletako meatze paisaiak ingurumenaren aldetik leheneratzea"), 104.850 euroan.

2.- Arabako Mendialdeko Asfalto Naturaletako meatzaritzako paisaiak egokitzeko eta ingurumena lehengoratzeko obraren esku hartzeko eta obrak gauzatzeko beste proiektu batzuk idaztea, bai eta beharrezkotzat jotzen diren obrak zuzentzeko eta ikuskatzeko laguntza teknikoak ere, 867.150 euroko zenbatekoan, betiere "1.60.2.05.63.00.621.01.04 Arabako Mendialdeko Asfalto Naturaletako meatze paisaiak ingurumenaren aldetik leheneratzea" delakoaren 2020rako Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuko gastuen egoeraren partidaren kargura, urteka honela banatuta:

2020.....	5.150,00 €
2021.....	360.000,00 €

Una vez finalizada las obras de recuperación de los espacios mineros objeto del convenio, la Diputación Foral de Álava presentará una memoria final de liquidación con la cuantía de la inversión total efectivamente ejecutada y las cantidades a compensar, en su caso, a favor del Gobierno Vasco.

Por su parte, los importes de las contrataciones a efectuar por la Diputación foral de Álava y su respaldo presupuestario serán los siguientes:

1.- Redacción del Proyecto ejecutivo de obras de puesta en seguridad, consolidación, acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de la Mina Lucia, en el municipio de Arraia-Maeztu, con cargo a la partida del estado de gastos del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2020 la "1.60.2.05.63.00.621.01.03 Restauración ambiental paisajes mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa", por importe de 104.850 €.

2.- Redacción de otros proyectos de intervención y ejecución de obras de acondicionamiento y restauración ambiental de los paisajes mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa, así como las asistencias técnicas en la dirección e inspección de las obras que se considerasen necesarias, por importe de 867.150 €, con cargo a la partida del estado de gastos del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2020 la "1.60.2.05.63.00.621.01.04 Restauración ambiental paisajes mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa", con la siguiente distribución por anualidades:

2020.....	5.150,00 €
-----------	------------



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



2022.....300.000,00 €

2023.....202.000,00 €

2021.....360.000,00 €

2022.....300.000,00 €

2023.....202.000,00 €

Ordainketa kudeatzeaz eta izapidetzeaz arduratuko den organoa Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza izango da.

HIRUGARRENA. Kontratazio organoa:

Kontratazio-organoa Arabako Foru Aldundia izango da, eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari hitzarmenaren esparruan garatu beharreko jarduketa zehatzen berri emango dio, dagokion dokumentazio teknikoa eta administratiboa aurkeztuz.

LAUGARRENA. Lizitazioko bajak:

Lizitazio prozesuak eragindako bajek, halakorik balego, ez dute eraginik izango bigarren klausulan adierazitako ekarpenen baliabide absolutuetan, osorik erabiliko bailirateke obra eta proiektu osagarri edo gehigarrietatik eratorritako gastuak ordaintzeko, administrazio sinatzaileek alde zuzenetik hala adostuta. Hala ere, aurreko letrakadan adierazitakoa gorabehera, bete ezin diren bajak badaude, finantza eragileen ekarpenak murriztuko dira, bigarren klausulan adierazitako proportzioaren arabera.

BOSGARRENA: Kapital transferentziak:

Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak

El órgano encargado de la gestión y tramitación del pago será la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras.

TERCERA. Órgano de contratación:

El Órgano de contratación será la Excm. Diputación Foral de Álava que comunicará a la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco las actuaciones concretas a desarrollar en el marco del Convenio, aportando la documentación técnica y administrativa correspondiente.

CUARTA. Bajas en la licitación:

Las bajas, si las hubiere, motivadas por el proceso de licitación no afectarán los recursos absolutos de las aportaciones señaladas en la Cláusula Segunda, pues se destinarían en su integridad a sufragar gastos derivados de obras y proyectos complementarios o adicionales, previo acuerdo de las Administraciones suscribientes. No obstante, si a pesar de lo señalado en el párrafo anterior resultaren bajas no ejecutables, se minorará las aportaciones de los agentes financieros según la proporción señalada en la Cláusula Segunda.

QUINTA: Transferencias de capital:

Las transferencias de capital de la Dirección de



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Arabako Foru Aldundiari egindako kapital transferentziak justifikatzeko, ezinbestean aurkeztu beharko dira hitzarmen honen xedean aipatzen diren proiektuen obra esleipenak eta hitzarmen honen helburuak betetzeko egin beharreko gastuak justifikatzeko agiriak. Hitzarmen honen barruan sartzen dira Arabako Foru Aldundiak 2020ko ekitaldian Arraia-Maeztu udalerriko Lucia meategiaren segurtasuna ezartzeko, sendotzeko eta erabilera publiko eta ekoturistikorako egokitzeko proiektua idazteko lanak egiteko esleitutako gastuak.

SEIGARRENA. Jarraipen Batzordea:

1. Ezarri beharreko jarduerak zehazteko eta lanak kudeatu, ikuskatu eta kontrolatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, eta bertan erakunde sinatzaile bakoitzeko ordezkari batek parte hartuko du. Era berean, Jarraipen Batzordearen lanetan parte hartzeko gonbita egin ahal izango zaie, betiere aldeetako edozeinek, Eusko Jaurlaritzako edo Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuek eta sinatzaileek egokitzen duten beste edozein erakunde publikok edo toki erakunde eskatuta.

2. Honako hauek dira Jarraipen Batzordearen egitekoak:

- a) Hitzarmen honen burutzapenaren jarraipena, zaintza eta kontrola.
- b) Hitzarmen honen interpretazioaz eta

Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco a la Diputación Foral de Álava se justificarán contra presentación de la documentación justificativa de las adjudicaciones de obra de los proyectos a que se refiere el objeto del presente convenio y de los gastos a realizar en cumplimiento de los objetivos del presente Convenio. Quedan incluidos en el presente Convenio los gastos consignados en el ejercicio 2020 por la Diputación Foral de Álava para la realización de los trabajos de redacción del Proyecto de ejecución de puesta en seguridad, consolidación y acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de las Minas Lucía en el municipio de Arraia-Maeztu.

SEXTA. Comisión de Seguimiento:

1. Para la determinación de los actuaciones a implementar así como para la gestión, inspección y control de los trabajos, se formará una Comisión de Seguimiento en la que participará un representante de cada uno de los Organismos suscribientes. Así mismo, podrá ser invitadas a participar en los trabajos de la Comisión de Seguimiento, a petición de cualquiera de las partes, otros Departamentos del Gobierno Vasco o de la Diputación Foral de Álava, así como, cualesquiera otros Organismo Públicos o Entidades Locales que los firmantes estimen convenientes.

2. Son funciones propias de la Comisión de Seguimiento:

- a) Realizar las funciones de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del presente Convenio.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



- burutzapenez sortzen diren arazoak ebaztea eta, behar denean, proposatzea.
- c) Hitzarmen honen xede diren jarduketak betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak proposatzea.
- d) Hitzarmena azkentzea adostea bertan ezarrita dauden kasuetan.
3. Jarraipen Batzordea gutxienez 4 pertsonak osatuko dute:
- a) Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzako titularra, edo hark eskuordetzen edo ordezten duena, eta zuzendaritza horri atxikitako Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuko burua.
- b) Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzako titularra, edo hark eskuordetzen edo ordezten duena; eta sail horretako funtzionario bat, hark izendatua.
4. Jarraipen Batzordea biltzeko deialdiak batzordeburuak egingo ditu; batzordea honako kasu hauetan bildu behar da, gutxienez:
- a) Urte bakoitzaren amaieran, hitzarmenaren xedea lortzen ari den ala ez baloratzeko eta horren berri emateko.
- b) Hitzarmenaren baldintzak aldatu beharra dakarren aldaketaren bat gertatzen denean.
- c) SINATZAILE BATEK eskatzen duenean, batzordearen berezko egitekoekin lotutako gairen bat aztertzeko.
5. SINATZAILEEK konpromisoa hartzen dute
- b) Resolver y proponer, en su caso, los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse en relación con el presente Convenio.
- c) Proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente Convenio.
- d) Acordar la extinción del presente Convenio en los supuestos previstos en el mismo.
3. La Comisión de Seguimiento estará compuesta, al menos, por 4 personas:
- a) La persona titular de la Dirección de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, o persona en quien aquélla delegue o sustituya, sobre la que recaerá la Presidencia de dicha Comisión; y la jefa del Servicio de Sostenibilidad Ambiental adscrito a dicha Dirección.
- b) La persona titular de la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco, o persona en quien aquélla delegue o sustituya; y un funcionario de dicho Departamento, nombrado por aquélla.
4. La Comisión de Seguimiento será convocada por la Presidencia, al menos, en los siguientes supuestos:
- a) Al final de cada año, para valorar y dar cuenta de la evolución seguida en la consecución del objeto del presente Convenio.
- b) En todo caso, siempre que se produzcan cambios que impliquen o requieran una modificación de las condiciones del presente Convenio.
- c) Cuando sea solicitado por cualquiera de las PARTES FIRMANTES al objeto de tratar cualquier asunto comprendido dentro de las funciones propias de dicha Comisión.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Jarraipen Batzordean buru-belarri aritzeko haren helburuak eta xedea modu egokian betetzeko eta erdiesteko asmoz.

ZAZPIGARRENA. Aldatzeko araubidea.

1. Hitzarmen honen edukia aldatu ahal izango da. Horretarako, SINATZAILEEK berariaz eta aho batez adostu beharko dute, eta, hala badagokio, eranskin gisa erantsi beharko zaio

2. SINATZAILEAK beharturik daude hitzarmen honen xedea, izaera edo baldintzak alda ditzakeen edozein gertaera berariaz eta berehala jakinaraztera.

ZORTZIGARRENA. Indarraldia eta luzapena.

1. Hitzarmen honek iraupen zehatza izango du sinatzen den egunetik 2023ko abenduaren 31ra arte.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, ALDERDI SINATZAILEEK aho batez adostu ahal izango dute beste bi urtez luzatzea.

BEDERATZIGARRENA. Iraungitzea.

1. Hitzarmen hau amaituko da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat sortzen denean:

a) Alde sinatzaileek hitzarmena suntsiarazteko erabakia hartzea indarraldia amaitu aurreko edozein momentutan.

5. Las PARTES FIRMANTES se comprometen a participar activamente en el seno de la Comisión de Seguimiento para la óptima consecución de sus fines y objeto.

SÉPTIMA. Régimen de modificación.

1. El contenido del presente Convenio podrá ser modificado, requiriéndose para ello acuerdo expreso y unánime de las PARTES FIRMANTES, debiendo ser, en su caso, incorporado al mismo como adenda.

2. Las PARTES FIRMANTES quedan obligadas a notificarse de forma expresa e inmediata cualquier eventualidad susceptible de alterar o afectar el objeto, naturaleza o condiciones del presente Convenio.

OCTAVA. Plazo de vigencia y prórroga.

1. El presente Convenio tendrá una duración determinada desde el día de su firma hasta el 31 de diciembre de 2023.

2. En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto en el apartado anterior las PARTES FIRMANTES podrán acordar unánimemente su prórroga por un período de hasta dos años adicionales.

NOVENA. Extinción.

1. El presente Convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución:

a) La adopción por las PARTES FIRMANTES de un acuerdo de extinción del Convenio, en



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



b) Alde sinatzaileek onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

c) Baliogabetasuna adierazten duen ebazpen judiziala egotea.

2. Nolanahi ere, hitzarmen hau azkentzen bada, likidatu egingo da, hala badagokio, ALDERDI SINATZAILE bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, betiere urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, bere 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

HAMARGARRENA. Izaera eta jurisdikzioa.

1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publiko Araubide Juridikoarenak, bere 47.a) artikuluan eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoarenak, bere 79. artikuluan ezarritako administrazio arteko lankidetzaren hitzarmen berru sartzeko; era berean, hitzarmenaren interpretazioa eta garapena honako arautegi hauetan ezarritakoaren arabera izango da: urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publiko Araubide Juridikoarenak, bere 3. eta 47. artikuluan eta hurrengoetan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubideko Oinarrienak, bere 55. artikuluan ezarritakoaren arabera (betiere abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionaltasun eta Iraunkortasunarenak, egindako aldarazpena kontuan hartuz) eta gainerako arautegi aplikagarriak ezarritakoaren arabera.

2. Hitzarmen hau interpretatzean, aldatzean,

cualquier momento anterior a la finalización de su plazo de vigencia.

b) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las PARTES FIRMANTES.

c) El dictado de una resolución judicial firme que declare de su nulidad.

2. En todo caso, la extinción del presente Convenio dará lugar a la liquidación del mismo al objeto de determinar, en su caso, las obligaciones y compromisos de cada una de las PARTES FIRMANTES, estándose para ello a lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

DÉCIMA. Naturaleza y jurisdicción.

1. El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, correspondiéndose con la tipología de los convenios interadministrativos de colaboración contemplados en el artículo 47.2 a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como en el artículo 79 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, rigiéndose su interpretación y desarrollo en los términos establecidos en los artículos 3, 47 y siguientes de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el artículo 55 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, tras su modificación por la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local, así como la demás legislación y normativa de aplicación.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



suntsiaraztean eta haren ondorioen inguruan sor daitezkeen gatazkak bosgarren klausulan ezarritako jarraipen batzordeak aztertu eta ebaztiko ditu. Hori posible izan ezean, auzigaiak ezagutzeko eskudunak izango dira administrazioarekiko auzi ordenako jurisdikzio organoak.

HAMAIKAGARRENA. Argitalpena.

Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru ArauaK, Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoarenak, bere 79.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, hitzarmen hau izenpetu ondoren, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ados daudela eta bat datozela adierazteko, bertaratuek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**ARABAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMEN
ETA HIRIGINTZA SAILAREN IZENEAN
POR EL DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y URBANISMO DE LA DIPUTACIÓN FORAL
DE ÁLAVA**

2. Las controversias que pudieran surgir sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del presente Convenio se someterán para su resolución a la Comisión de Seguimiento contemplada en el mismo. Si ello no fuera posible, serán competentes para conocer las cuestiones litigiosas los órganos jurisdiccionales del orden contencioso-administrativo.

UNDÉCIMA. Publicación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 79.4 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, una vez suscrito el presente Convenio será objeto de publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en el Boletín Oficial del País Vasco.

Como expresión de su consentimiento y conformidad los comparecientes firman el presente Convenio por duplicado ejemplar en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento.

**EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN
GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN
IZENEAN
POR EL DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONÓMICO E
INFRAESTRUCTURAS DEL GOBIERNO
VASCO**